

EAJ-RI ESAN DIO «HORRELAKO AKORDIO ETA JOLASETAN» PARTE HARTUZ EZ DUELA BIDE EGOKIA AUKERATU

# Desafiotzat jo du Jose Maria Aznarrek Hautetsien Biltzarraren eraketa

■ «Logika demokratikoari eta euskal gizartearen borondateari eginiko desafioa da», esan du Espainiako Gobernuako presidentek

■ Legitimitatea kendu nahi dio Aznarrek Udalbiltzaren eraketari, ez duela gehiengoaren sustengua argudiatuta

■ Aznarrek berretsi du PPK ez duela parte hartuko Herri Batasuna dagoen inongo elkarrizketa forotan


Agentziak / Madril

JOAN den larunbatean Bilbon eratu zen Udal eta Udal Hautetsien Biltzarraren kontrako erreakzio andana izan da egunotan, bereziki PPren eta PSOEren aldetik. Atzo Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuako presidentek hitz egin zuen. «Logika demokratikoari, sen onari eta euskal herritarren borondateari eginiko desafioa da. Ni, behintzat, ez naiz desafiatua sentitzen», adierazi zuen Aznarrek.

Jerzy Buzek Poloniako lehen ministroarekin batera eginiko prentsurrekoan galdetu zioten Aznarri Hautetsien Biltzarrari buruz. Euskal erakunde nazionalari legitimitatea kentzen saiatu zen presidentea. «Erakunde horrek ez du euskal herritarren gehiengoaren ordezkaritza, ezta udalen gehiengoarena ere. Ez du, beraz, abian jartzeko legitimitaterik, eta are gutxiago, egungo erakundeak ordezkatzeko».

Aznarrek ez zuen daturik eman nahi izan, baina, gogoratu behar da Hego Euskal Herriko hautetsien ia erdia izan zela joan den larunbatean Bilboko Euskalduna Jauregian, eta erakunde berria sustengatzen duten alderdi abertzaleetako hautetsiek gehiengoa osatzen dutela. Udalei dagokienez, orain hasiko dira erabakitzen uda bezala Biltzarrean parte hartzea ala ez.

EAJ zuzenean aipatu ez bazuen ere, jarreraz aldatzeko deia egin zion. «Akordio horietan, edo jolas horietan dauden batzuek hobe lukete jarrera aldatzea, hartu duten bidea ez delako batere egokia, logika konstituzionalari desafioa egitea delako». Aznarrek, PPko beste buruzagi batzuek egin duten bezala, aditzera eman zuen EAJk eta EHk esanahi desberdina ematen diotela Udalbiltzari,



Jose Maria Aznar, Poloniako lehen ministro Jerzy Buzekin atzo eginiko agerraldian.

hortik ondorioztatzeko Lizarrako Ituna arazo bihurtu dela sinatu zutenentzat.

Bestalde, ETArekin harremanak izatea baimendu dela berretsi zuen. «Erakunde horrek bakearen alde urratsak egitea da guk espero duguna», azaldu zuen.

Dena den, Herri Batasuna-

## JOSE MARIA AZNAR

■ ■ ■ «Akordio horietan dauden batzuek hobe lukete jarreraz aldatzea»

rekin ez hitz egiteko jarrerari eusten dio. Hala, eta Juan Jose Ibarretzek, Euskal Autonomi Elkarte Jaureritzako lehendakariak, abiatu nahi duen foroa dela eta, PPK ez duela parte hartuko esan zuen, «HB han baldin badago, eta artean ez badu indarkeria gaitzetsi».

## Madrazo: «EAJk HBri eginiko kontzesioa da»

Europa Press / Madril  
IU-EB-KO koordinatzaile Javier Madrazoren ustez, «EAJk HBri eginiko kontzesioa baino ez da» Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra. Radio Nacional de España-ri eginiko adierazpenetan, Madrazok garrantzia kendu zion erakunde berriari, «deialdiak zatiketa eragin duen arren, ez duelako Euskal Herriko bitzta politikoa baldintzatuko».

Udalbiltzak ez duela «eduki sozialik», euskal herritarren benetako arazoak ez dituela ukitzen, eta Euskal Autonomia Elkarte eta Nafarroa gehiago banatzen dituela uste du IUko buruzagi Javier Madrazok.

## PSOE: «Abertzaletasunaren porrota da»

Erredakzioa / Donostia  
UDAL Hautetsien Biltzarra eratu aurretik zabaldu zuten mezu bera errepikatu dute PSOEko buruzagiek ondoren ere. Eusko Legebiltzarrari «burla» egiten diola, eta berau ordezkatu nahi duela esan zuen atzo Alfredo Perez Rubalcabak, PSOEko bozeramaileak, nahiz eta horrelako helbururik ez duen agertu Udalbiltzak. Erakunde berria tresna

antidemokratikoa dela berretsi zuen, eta udalen izaera aldatzen duela.

Bigarren mezua Arabako senadore Javier Rojok zabaldu zuen. Biltzarraren eraketak «abertzaletasunaren porrota» adierazten duela esan zuen, «euskal herritarrek joan den hauteskundeetan erabaki zutena onartu ez dutelako». Haren ustez, orduko emaitzak «makilatu» nahi dituzte

alderdi abertzaleek Hautetsien Biltzarra sortuz. Baina gogoratu behar da udaletarako boza ematerakoan Hego Euskal Herriko herritarretan gehienek alderdi abertzaleak hautatu zituztela.

Rosa Diez europarlamentario sozialistak esan zuenez, «propaganda hutsa» izan da Biltzarraren eraketa, «eta ez dute lortu Legebiltzarra hankaz gora jartzea».